



Balentzia Tirapu, Joakin

(Iruñea, 1947)

Metфора gutxi dauzka nire poesia hizkerak, baina tartekaturik daude han-hemenka loretxo batzuen arabera. Narrazio poetikoak baitira gehienbat nireak, noizbait nahiko prosaikoak, baina neurtuak era libre batez. Bai, bada egunetako aparra dantzatzeko denbora maitasuna egin baino lehen baden bezala. Aparra du bizitzak, goian edo nonbaitetik atera eta gero desegiten dena. Itsasoan behin eta berriz sortzen da, olatuek haitzen aurka jotzen duten aldiro, opari gisa. Eta badago esneak irakiten duenean, baina kontuz ibili behar da ez gainezkatzeko gero. Suhiltzaileek ere bitsa erabiltzen dute noizbait suren bat iraungitzeko. Baina errekek bitsa badaramate, normalean erran nahi du badutela nolabaiteko kutsadura. Denetan ez, baina anitzetan apar-irudi-metфора sobera dago gaurko euskal poemagintzan, ene uste apalean, eta, garagardoari bezala, kendu egin behar zaio gehiegi bada...

49

Bibliografia:

- *Heriotzaren ipurdia*. Narratiba —Ipuin bilduma—, 1988, Pamiela.
- *Espaloian dago munduaren xilkoa*. Poesia, 1988, Susa.
- *Amaigabeko zikloa*. Poesia, Irun Hiria Poesia saria 1995, Gipuzkoako Kutxa.
- *Egunkari ezkutua*. Poesia, 2002, Hatsa.
- *Egunetako aparra*. Poesia, 2008, Hatsa.
- Literatur aldizkarietan, *Korrok*-eko kolaboratzailea, baita *Hatsaren Poesia* olerki bilduman ere zazpi urtez; azken hiru olerki argitaratuak, *Bazen behin* epigrafepean, Maiatz aldizkariaren 61. zenbakian 2015eko azaroan.

MUSU BAT BEHAR DUT

"I need a kiss"

*Idatzita zegoen neskata haren kamisetan,
eta nire ingeles apalean
ongi ulertu nuen "behar dut musu bat"
neskatxaren bularraren gainean idatzita
zegoen eskaera gozo hura:
elastikoa beltza zen eta letrak zuriak
autobusean urrun nengoeneko lekutik
oso ongi irakur nitzakeenak;
hurbildu nintzen pixka bat,
distantzia egoki batez bere aurrean jarrita,
eskale premiatsuaren itxura
hobeto aztertzearren:
oso gaztea zen,
hamasei urte-edo zituen,
eta hasi nion galdetzen ene buruari
non beharko ote zukeen
musu ematea,
ziur aski ezpainetan,
pentsatu nuen lehendabizi,
ezpain fin, gorri eta erakargarri haietan,
mutil-lagun presturen bat
ez zuelakoan bainengoen
eskari premiazko hura betetzearren,
edo bai, bazuela, baina ez zela nahikoa,*

*eta behar zuela gehiago, nabarmenki,
edota soilik aditasuna behar zuela;
hausnarketa hauetan murgilduta nengoela
mutil gazte bat
eseri zen bere ondoan
eta hasi zen berarekin hitz egiten,
ausarki, ezezagunak zirela nabaria izaki,
baina neskak aurpegi txarra paratzen zuen
mutilaren elkarrizketa aditzean,
serios, monosilaboen bidez
bakarrik erantzunez;
orduan nire artean erran nuen:
"hik pentsatzen dukena
horrek, ausaz, ausartu da adierazten",
baina ez zuen arrakastarik izan,
ezta masailean ere,
kamisetan musua aldarrikatzen zuena
jaiki baitzen hiruzpalau minutu pasata,
eta autobusen ate ondoan ipini zen,
zutik, bere geldidunearren zain,
aditasuna erakarri ondoren,
"arrazoi dun, panpoxa,
denok behar dinagu musuren bat,
baina noiz eta norena
hori dun ausia"...*

Egunetako aparra bildumatik aterea.

50



Baos Galán,

Carlos

(Almodóvar del Campo, Ciudad Real, 1933 - Pamplona, 2009)

"Me interesé por el arte gracias a mi padre y a algunos amigos de la familia que verían en mí ciertas tendencias, desde la escuela" rememoraba. Por esa afición "innata" a la literatura, ya en la escuela un profesor le facilitaba lecturas (Machado, Juan Ramón...).

En Madrid, hacia 1953, con becas y ayudas al estudio, realiza tres años de Derecho. Contacta con la vida literaria madrileña en el Ateneo, en charlas y recitales, tiene una vivencia más directa del mundo literario. Se afianza su vocación.